


## EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


### Europako baikortasuna zertxobait apaldu da

#### Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak osatzen duen ekonomia sentimenduaren indizeak beheranzko joera arina erakutsi du 2018ko hasieran. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko multzoak 115,0ko balio batekin amaitu zuen 2017. urtea eta 2018ko ekainean 112,2an kokatu zen. Eraikuntzak bakarrik lortu zuen 2017ko amaierako datua hobetzea. Are gehiago, aurtengo maiatzean inoizko baliorik gorena eskuratu zuen 4,8an kokatuta, ekaineko datua baino sei hamarren gorago. Gainontzeko osagaien artean, kontsumitzailearen konfiantzak behera egin zuen -1,3ra arte. Jaitsiera horren atzean Trumpek hasi duen arantzel gerra eta Europako hainbat herrialdetako tentsio politikoak egon daitezke. Moteltzeko joera hori eremuko herrialde nagusietara hedatu zen. Esate baterako, Alemaniak ekainean 111,9ko balioa jaso zuen eta Frantziak 109,6koa, biak abenduko emaitzaren azpian daudela, baina erreferentziazat hartzen den 100aren gainetik.

#### Ekonomia sentimendua Alemanian





#### Ekonomia sentimendua Frantzian



**Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan**

Urte hasieran beherantz egin ondoren, Italia zertxobait suspertu zen ekainean (109,8 jaso zuen, maiatzeko 108,4aren aldean). Zerbitzuak (11,9) eta txikizkako merkataritza (7,2) izan zuten sentimendu baikorrena. Aitzitik, eraikuntzak (-12,7) eta kontsumitzailearen konfiantzak (-3,2) okerrera egin zuten. Hala eta guztiz ere, Europar Batasuneko bilakaeratik aldenduta, kontsumitzailearen konfiantzak zertxobait hobetu zuen ekainean. Hobekuntza hori gobernua osatutakoan ziurgabetasun politikoa desagertzeak ekarri du.

Erresuma Batuko indizea 106,9an kokatu zen, aipatu diren bi potentzien datuen azpian, baina oraindik zeinu positibo batekin. Txikizkako merkataritzak izan zuen bilakaera onena, 7,6ko emaitzarekin, azken sei hilekoko altuena baita. Kontsumitzailearen konfiantzak zertxobait hobetu zuen urte hasieran, baina ekainean -7,0ra jaitsi zen, 2017ko abenduan jaso zuena berdinduz. Badirudi Brexita kalte egiten hasi dela herrialdeko ekonomia sentimenduan.

**Ekonomia sentimendua Italian****Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainia ez da gai izan 110 puntuetatik gora egonkortzeko. Zerbitzuak (23,6) eta txikizkako merkataritza (11,4) dira ekonomia horren indargune nagusiak. Bi horiei kontsumitzailearen konfiantza gehitu zitzaion ekainean, 1,8ko balio batekin, 2017ko uztailetik izan duen baliorik gorena baita. Halere, eraikuntzaren eta industriaren sentimendu negatiboak, azken hori lehen aldiz hamar hilekotan jaitsi baitzen, besteen hobekuntza konpentsatu zuen. Beraz, indizeak aurreko hilekoan jasotako 109,4ko maila berdindu zuen.